# Bastero Kulturgunearen funtzionamendua eta ordutegia erregulatzen dituen araudia

# Normativa de funcionamiento y horario del Centro Cultural Bastero

**1.-Definizioa.**
Bastero Kulturgunea nagusiki musikaren, arte eszenikoen, arte plastikoen eta zinearen sorkuntzan eta zabalkundean eraginik izateko antolaturiko kulturgunea da.

**1.-Definición.**
El Centro Cultural Bastero tiene como principal fin impulsar la creación y expansión de la música, artes escénicas, artes plásticas y el cine.

**2.-Ardura.**
Bastero Kulturgunea kulturarekin lotura duen udal instalakuntza bat da eta bere funtzionamendua udal kultura batzordearen ardurapekoa da.

**2.-Responsabilidad.**
El Centro Cultural Bastero es una instalación ligada a la cultura, y su funcionamiento queda bajo la responsabilidad de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Andoain.

**3.-Erabiltzaileak**
Bastero Kulturguneko erabiltzaileaz hitz egiterakoan, nagusiki bi erabiltzaile mota bereiziko ditugu :
3.1.-Basteron eskaintzen diren jardueretan parte hartuko dutenak eta
3.2.-Basteroko guneetan jarduerak aurrera eramango dituztenak.

*3.1.-Udalak Basteron prestatuko dituen jardueretan parte hartuko dutenak:*

3.1.1. Bastero Kulturguneko bazkide/lagunak.

Hauek, harpidetzarako izena eman ondoren, horretarako ezarriko den kuota bat ordainduko dute eta bere izaera hau adierazten duen txartela izango dute.
Bazkide izateak honako eskubideak eta lehentasunak emango dizkie :

- Udaleko Kultura Batzordeak berak zuzenean antolatzen dituen kultur ekintzetan, %20aren beherapena.
- Udaleko Kultura Batzordeak argitaraturiko argitalpenetan (liburuak nahiz beste edozein euskarrietan) %20aren beherapena.

Beherapenetik kanpo gelditzen dira: asteko zine komertzialaren saioak, Kultura Batzordea ez den beste elkarte, ikastetxe edo enpresek antolaturiko ekitaldiak.

- Aurrez aldeko salmenta zabaltzerakoan, lehenengo egunean sarrerak eskuratzeko lehentasuna izatea. Txartel bakoitzeko, gehienez 3 sarrera eskuratu ahal izango dira.
- Bastero Kulturgunerako prestatzen den programazioaren berri etxean jasotzeko eskubidea.
- Urteko lehen hiruhilekoko jarduera batetarako doaneko bi sarrera lortzeko eskubidea.

**3.-Los usuarios.**
Al referirnos a los usuarios del Centro Cultural Bastero, distinguiremos principalmente dos tipos de usuarios:
3.1.-Los que participarán en las actividades ofertadas en Bastero y,
3.2.-Los que ejecutarán actividades en Bastero.

*3.1.-Los que participarán en las actividades organizadas por el Ayuntamiento en Bastero:*

3.1.1.- Socios/amigos del Centro Cultural Bastero:
Tras asociarse y abonar la cuota correspondiente, los socios tendrán un carnet que les identifique.

Los socios disfrutarán de los siguientes derechos y prioridades:

- Descuento del 20% en las actividades organizadas directamente por la Comisión de Cultura del Ayuntamiento.
- Descuento del 20% en las publicaciones editadas por la Comisión de Cultura del Ayuntamiento (libros o publicaciones en cualquier otro soporte).

Quedan exentos de descuento: Las sesiones semanales de cine comercial y las actuaciones organizadas por asociaciones, centros escolares o empresas que no sean la Comisión de Cultura.

- Prioridad para comprar entradas en la venta anticipada. Por cada tarjeta podrán adquirirse 4 entradas.
- Derecho a recibir información sobre el programa del Centro Cultural Bastero a domicilio.
- Derecho a conseguir dos entradas gratis para una de las actividades del primer trimestre del año.

3.1.2. Erabiltzaileak:
Hauek, Bastero Kulturguneko Auditorioan, Ekitaldi Aretoan, Erakusketa Gelan eta Fonotekan eskaintzen diren jardueretara etortzen direnak izango dira, ordaindu behar denean sarrera ordainduko dutelarik eta doan denean, doaneko sarrera hartu eta sarreran erakutsiko dutelarik.

3.1.2.Los usuarios:
Podrán acceder al Auditorio, al Salón de Actos, a la Sala de Exposiciones y a la Fonoteca del Centro Cultural Bastero mediante la correspondiente compra de entrada, y si ésta es gratuita, no obstante, deberán retirarla y mostrarla para su acceso.

3.1.3. Udal Liburutegiko bazkideak:
Nahiz eta Fonotekarako sarrera librea izan erabiltzaile guztientzat, bertako materiala mailegatu eta etxeratzeko eskubidea, Udal liburutegiko bazkideek izango dute, horretarako txartela ateratzea eta edukitzea nahikoa izango delarik. Materialaren erabilerarako baldintzak udal liburutegiak orokorrean onartzen dituenak izango dira hemen ere.

3.1.3.- Socios de la biblioteca municipal:
Aunque la entrada a la Fonoteca es libre para todos los usuarios, sólo tendrán derecho a tomar prestado el material los socios de la biblioteca municipal, a quienes se requerirá tener el correspondiente carnet. Las condiciones de uso del material serán las mismas aprobadas por la biblioteca.

3.1.4. Musika Eskolako ikasleak:
Musika Eskolan matrikulatuta dauden ikasleek, Musika Eskolako gelak (ikasgelak eta entsegu gela) erabiltzeko eskubidea dute, horretarako Musika Eskolak ikasturterako onartuak dituen ordutegiak eta plangintzak bete beharko dituztelarik.

3.1.4.- Estudiantes de la escuela de música:
Los estudiantes matriculados en la Escuela de Música tendrán derecho de utilizar las diferentes aulas de la Escuela de Música (aulas de estudio y el aula de ensayo), siempre y cuando respeten los horarios y planes del curso aprobados por la Escuela de Música.

*3.2. : Bastero Kulturguneko leku eta aukera desberdinak berak antolaturiko edo bere beharretarako behar duten erabiltzaileak:*

*3.2.- Los usuarios que necesiten usar los diferentes espacios y opciones que ofrece el Centro Cultural Batero para llevar a cabo sus propias actividades o para sus necesidades:*

3.2.1. Kultur taldeak : Izaera hau Udaleko Kultura Batzordearekin harremana duten herriko kultur taldeek izango dute.

Talde hauek udaleko kultura batzordeak zuzenean eramango duen kultur jardueraz gain, beraiek sorturiko edo antolaturiko jarduerak aurrera eramateko eskubidea ere izango dute Bastero Kulturgunean beraien eskabideak eta jokabideak aurrerago zehaztuko den moduan egingo dutelarik.

Talde hauek Auditorioa, Ekitaldi Aretoa, Erakusketa Gela eta Bilera Gela erabiltzeko eskubidea izango dute, aurrera eraman nahi dutenaren ezaugarriak eta beharrak aztertuta eta horietako gune bakoitzaren betebeharrak kontuan hartuta.

3.2.1.Grupos culturales:
Se trata de grupos culturales de la localidad que tengan relación con la Comisión de Cultura del Ayuntamiento.

Estos grupos tendrán derecho a llevar a cabo actividades elaboradas y organizadas por ellos mismos, al margen de las actividades organizadas directamente por la Comisión de Cultura del Ayuntamiento. Para ello, deberán formalizar las solicitudes siguiendo los procedimientos detallados más adelante.

Dichos grupos podrán utilizar el Auditorio, Salón de Actos, la Sala de Exposiciones y la Sala de Reuniones, previo examen de las características y necesidades de la actividad que se llevará a cabo y teniendo en cuenta las funciones que desempeña cada Sala.

3.2.2. Ikastetxeak :
Herriko ikastetxeek, eskola orduetan, bere ikasleekin aurrera eraman nahi dituzten zenbait

3.2.2.Centros escolares:
Los centros escolares de la localidad tendrán derecho de llevar a cabo algunas de las

ekintza ere hemen burutzeko eskubidea izango dute, horretarako ezarriko diren baldintzak ere bete beharko dituztelarik.

3.2.3. Beste batzuk : hemen sartuko ditugu :
Udaleko beste sailak, udalerritik kanpoko kultur eta hezkuntza taldeak, udalerriko nahiz kanpoko enpresa edo erakunde pribatuak.

Hauek ere, eskubide hori izateko, jarritako baldintzak bete beharko dituzte.

actividades para las que se destina el Centro con los estudiantes y en horas lectivas, cumpliendo asimismo con las condiciones establecidas para ello.

3.2.3.Otros: Forman parte de este grupo:
Otros departamentos del Ayuntamiento, gru-pos culturales y educativos que no sean del municipio, así como empresas o instituciones privadas que sean o no del municipio.

Para que estos grupos gocen de dichos derechos, deberán cumplir las condiciones establecidas.

**4.- Basteroko gune desberdinen antolaketa.**

**4.1. Auditorioa:**

4.1.1. Definizioa :
500 lagunentzako areto hau diziplina anitzetarako gune gisa sortua da, beharkizun teknikoengatik, ikusle kopuruarengatik edota abarrengatik aretoaren berezitasunen beharra duten zine proiekzioak, antzerki eta musika ekitaldiak era arin samarrean antolatzeko xedez.

Hemengo programazio nagusia honako hau izango da :

- Zine komertziala: emakida duen enpresak antolatu eta eskainiko duena ostiral gauetan, larunbat arratsaldetan/gauetan, igande arratsaldetan/gauetan eta astelehen arratsaldetan/gauetan.
- Antzerki, dantza, musika edo bestelako ekitaldiak : urtean zehar, 30 asteburu izango dira, gehienez, zineaz kanpo, beste ekitaldi mota antolatzeko modukoak.

Lehentasuna Udaleko Kultura Batzordeak aurrera eramango duen programazioaren ekitaldiek izango dute eta ondoren, beste eskatzaileenak.

Astelehenetik ostegunera bitartean antolatzeko ez da arazorik izango, horretarako jarritako baldintzak betetzen badira.

4.1.2. Erabilera araudia :
*Lehena* :Areto honen erabilera egiteko eskubidea, hurrenez hurren, honela izango da :

1. Zinearen emakida duen enpresak, urtarriletik maiatza bitartean (biak barne) eta irailetik abendura (biak barne) ostiral gauetan, larunbat arratsaldetan/gauetan, igande

**4.-Organización del espacio en Basterro.**

**4.1.-Auditorio:**

4.1.1.- Definición:
Se trata de un espacio dedicado a diversas disciplinas y con capacidad para 500 personas. Tiene la función de dar cabida a proyecciones de cine, teatro y actuaciones de música que por exigencias técnicas, por la afluencia del público o por otros motivos necesiten hacer uso de dicha sala.

Su principal programación será la siguiente:

- Cine comercial: Programado y ofrecido por la empresa adjudicataria del servicio los viernes por la noche, los sábados por la tarde/noche, los domingos por la tarde/noche y los lunes por la noche.
- Teatro, danza, música u otras actividades: Durante el año, se dedicarán como máximo 30 fines de semana a espectáculos o actividades que no sean cine.

Tendrán prioridad los actos llevados a cabo en el programa de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento, y después los de los solicitantes.

No habrá impedimentos para que se organicen de lunes a jueves, siempre y cuando se cumplan las condiciones establecidas para ello.

4.1.2.- Reglamento de uso:
*Primero:* Tienen derecho al uso de esta sala, en el orden establecido, los siguientes:

1. La empresa adjudicataria de la licencia, de enero a mayo (incluidos ambos) y de setiembre a diciembre (incluidos ambos) los viernes por la noche, los sábados por la

arratsaldetan/gauetan eta astelehen arratsaldetan/gauetan.

2. Udaleko Kultur Batzordea: bere programaziorako.
3. Udaleko Kultur Batzordea: Musika Eskolaren programaziorako.
4. Udalerrian erregistratutako kultur eta hezkuntza taldeak: kultur eta heziketa programazioa.
5. Udaleko beste sailak
6. Udalerriko enpresa edo erakunde pribatuak: kultur heziketa programazioa.
7. Udalerritik kanpoko kultur eta hezkuntza taldeak: kultur eta heziketa programazioa.
8. Udalerritik kanpoko enpresa edo erakunde pribatuak : kultur eta heziketa programazioa.
9. Beste batzuk

*Bigarrena.- Auditorioa erabil ahal izateko, eskaera idatzia aurkeztu beharko da Basteroko Administrazioan eskuratuko den ereduaren arabera.*

*Hirugarrena.-* Aretoaren erabilerarako eskatzen den data, zine emakidarekin egokitzen baldin bada, Kultura Batzordea izango da, udalak beretzat gordeta dituen 30 egun horietatik, eman ote litekeen aztertu eta erantzungo duena.

Baimena ematekotan, idatziz emango da, eskatzaileak bete beharreko baldintzak biltzen dituen inprimaki baten bidez.

*Laugarrena.-* Aldi berean bi eskaera aurkezten badira eta biek aretoa egun eta ordu berean erabiltzeko baimena eskatzen badute, lehenengo atalean aipatzen den lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio.

Era berean, urtearen hasieran kontuan izango dira kultur elkarteek urtero garai berean egiten dituzten ekitaldi finkoak, areto honen beharra dutenek dagozkien erreserbak egiteko.

*Bosgarrena.-* Ekitaldia zuzenean Udaleko Kultura Batzordeak antolatua denean, txartel-salmentari, sarrera-kontrolari eta instalazioak prestatzeari dagozkien lanak horretarako berariaz esleitutako enpresek egingo dituzte.

*Seigarrena.-* Udaleko kultura sailarekin

tarde/noche, los domingos por la tarde/noche y los lunes por el tarde/noche.

2. La Comisión de Cultura del Ayuntamiento: Para su programación.
3. La Comisión de Cultura del Ayuntamiento: para la programación de la Escuela de Música.
4. Grupos culturales y educativos registrados en el municipio: Programación de cultura y educación.
5. Otros departamentos del Ayuntamiento.
6. Empresas o instituciones privadas del municipio: Programación cultural y educativa.
7. Grupos culturales y educativos que no son del municipio: programación cultural y educativa.
8. Empresas e instituciones privadas que no son del municipio: programación cultural y educativa.
9. Otros.

*Segundo:* Para la utilización del Auditorio se deberá presentar la petición por escrito y siguiendo el modelo disponible en la administración del Centro Cultural Bastero.

*Tercero:* Si la fecha para la utilización de la Sala coincide con la emisión de cine, será la Comisión de Cultura quien examine y acuerde conceder o no uno de los 30 días reservados para el Ayuntamiento.

En caso de conceder el permiso, se le concederá mediante escrito en el que se detallará al/a la solicitante las condiciones que deberá cumplir.

*Cuarto:* Si se presentasen simultáneamente dos peticiones para la utilización de la sala para el mismo día y la misma hora, se respetará el orden de prioridad mencionado en el artículo primero.

Asimismo, a principios de año se realizará previsión de los actos que las asociaciones culturales desarrollan cada año en las mismas fechas, para poder así realizar las reservas de las salas necesarias.

*Quinto:* Cuando el acto esté organizado directamente por la Comisión de Cultura del Ayuntamiento, las labores de venta de entradas, control de entrada y puesta a punto de las instalaciones las realizarán las empresas adjudicatarias específicamente contratadas para ello.

*Sexto*: Las asociaciones culturales que tienen

hitzarmena sinatuta duten kultur taldeek eta irakaskuntza arautuko ikastetxeek Bastero Kulturguneko auditorioan kultura ekintza bat antolatzeko, bi aukera izango dituzte:

Diru irabazirik gabeko xedea duten emanaldiak: Bere urteko lana edo elkartrukaketaren bat egiten dutenean, aretoa doan erabiltzeko aukera urtean bitan izango dute gehienez, takila eta sarrera kontrolaren lana bere gain joango delarik.

Emanaldi hauen datak eta prezioak Kultura sailarekin adostuta jarriko dira.

Hortik gorako emanaldietan, indarrena dauden tasei %50aren beherapena aplikatuko zaie.

Diru irabaziaren xedea duten emanaldiak: aipatu talde horiek indarrean dauden tasen %50aren beherapena izango dute.

Sarreren prezioak Kultura Batzordearekin adostuta jarriko dira.

*Zazpigarrena*.- Antolatutako ekitaldia araudi honetako 1.ataleko 2, 3 eta 4 kasuetan sartzen ez bada, ekitaldia antolatzen duen taldeak Udalak urtero onartzen duen prezio publikoa ordaindu beharko du instalazioen alokairuarengatik.

*Zortzigarrena*.- Sor litekeen edozein arazoren berri Kultura teknikariari eman beharko zaio.

*Bederatzigarrena*.- Ezarritako arauak ez betetzeak ohartarazpena eta zehapena dakartza. Berriz ere ez betetzekotan, Auditorioa erabiltzeko eskubidea galduko da.

**4.2. Ekitaldi Aretoa :**

4.2.1. Definizioa :

Gehienez ere 200 ikusle har ditzakeen areto hau tamaina txikiko ekitaldiak, agerpenak, hitzaldiak, ikastaroak, hartzeko dago prestaturik.

Hemen, ekintza mota hauek antolatuko dira :

- Elizetan, Olagainen, La Sallen, Udaletxeko Pleno aretoan egin ohi diren ganbara musikako kontzertuak.
- “Udal Musika Eskolako” ikasleen kontzertuak eta beste eskolekin bultzatuko dituen elkartrukaketak.

firmado convenio son el Departamento de Cultura del Ayuntamiento así como los centros de enseñanza reglada del municipio tendrán dos opciones a la hora de organizar actos culturales en el auditorio de Bastero Kulturgunea:

Actos sin ánimo de lucro: Tendrán la oportunidad de hacer uso gratuito de la sala dos veces al año para presentar su programa anual de trabajo o algún intercambio. En este caso, la taquilla y las labores de control de entrada serían a su cargo.

La fechas y precios para estas actuaciones se establecerán de acuerdo con el Departamento de Cultura.

A partir de la tercera actuación anual, se aplicará un descuento del 50% a las tasas vigentes.

Actos con ánimo de lucro: Las asociaciones o grupos mencionados anteriormente tendrán un descuento del 50% sobre las tasas vigentes.

Los precios de las entradas se establecerán de acuerdo con el Departarmento de Cultura

*Séptimo:* En caso de que el acto organizado no esté incluido en los supuestos 1, 2, 3 y 4 del primer apartado, el grupo organizador del acto deberá abonar por el alquiler de las instalaciones la tasa que apruebe el Ayuntamiento anualmente.

*Octavo:* La Técnica de Cultura estará informada de cualquier incidencia que pueda surgir.

*Noveno:* El incumplimiento de la normativa conlleva la correspondiente notificación y sanción. En caso de nuevo *incumplimiento*, se perderá el derecho de utilizar el Auditorio.

**4.2.-Salón de Actos**

2.1.- Definición:

Sala que puede albergar un máximo de 200 espectadores y preparada para actos de pequeño formato, representaciones, conferencias y cursos.

En ella se organizarán los siguientes actos:

9. Conciertos musicales de cámara que habitualmente han venido realizándose en iglesias, en Olagain, La Salle, en el salón de Plenos del Ayuntamiento.
10. Los conciertos de los estudiantes de la «Escuela de Música Municipal» y los intercambios con otras escuelas.

- Tamaina txikiko antzezpenak; besaulki-areto ez klasikoa (hala nola "kafe-antzoki" moduko zerbait) eskatzen duten antzezpenak
- Dantzaldiak
- Ikus-entzunezkoak erabiltzen dituzten proiekzioak, hitzaldiak...
- Hitzaldiak
- Lehiaketetako sari banaketak.
- Prestakuntza eta formazio jarduerak.
- Bestelakoak.

11. Pequeñas representaciones teatrales; representaciones que no requieran la clásica sala de butacas (algo parecido al «café-teatro»).
12. Bailes.
13. Proyecciones, conferencias que requieran medios audiovisuales.
14. Conferencias.
15. Entrega de premios.
16. Actividades ligadas a prácticas y formación.
17. Otros.

4.2.2. Erabilera araudia :
Areto hau Udalak nahiz edozein talde, elkarte edo erakunde pribatuk antolatutako ahalik eta ekitaldi gehienetarako erabil dadin bultzatzeko, araubide honen bidez jardunbide-arauak ezarriko dira.

4.2.2.- Normativa de uso:
Con el fin de que en esta sala se puedan realizar la mayoría de los actos organizados tanto por el Ayuntamiento como por cualquiera de los grupos, asociaciones o instituciones privadas, mediante esta normativa se establecen las siguientes reglas de procedimiento.

*Lehena*.- Ekitaldi aretoa ondoko hauek erabili ahal izango dute, lehentasun-hurrenkera honetan :

1. Udaleko Kultura Batzordea: bere programaziorako.
2. Kultura Batzordea: Musika Eskolaren programaziorako.
3. Udalerrian erregistratutako kultur eta hezkuntza taldeak: kultur eta heziketa programazioa.
4. Udaleko beste sailak.
5. Udalerriko enpresa edo erakunde pribatuak: kultur eta heziketa programazioa.
6. Udalerritik kanpoko kultur eta hezkuntza taldeak : kultur eta heziketa proiektuak.
7. Udalerritik kanpoko enpresa edo erakunde pribatuak : kultur eta heziketa programazioa.
8. Beste batzuk.

*Primera:* El orden de prioridad con respecto al derecho de uso de la Sala Pequeña es la siguiente:

1. La Comisión de Cultura del Ayuntamiento: para su programación.
2. La Comisión de Cultura: para el programa de la Escuela de Música.
3. Grupos culturales y educativos registrados en el municipio: programación cultural y educativa.
4. Otros departamentos del Ayuntamiento.
5. Empresas o instituciones privadas del municipio: programación cultural y educativa.
6. Grupos culturales y educativos que no sean del municipio: proyectos culturales y educativos.
7. Empresas o instituciones privadas que no son del municipio: programación cultural y educativa.
8. Otros.

*Bigarrena*.- Ekitaldi Aretoa erabili ahal izateko, eskaera idatzia aurkeztu beharko da Basteroko Administrazioan eskuratuko den ereduaren arabera. Hor datu guztiak azalduko dira, inprimakian agertzen diren moduan. Horrekin batera, adierazten den dokumentazio osagarri guztia aurkeztuko da.

*Segundo:* Para la utilización del Salón de Actos se deberá presentar la petición por escrito y siguiendo el modelo disponible en la Administración de Bastero. En ella se harán constar todos los datos tal y como se requieren en el impreso. Asimismo, se adjuntará toda la documentación requerida.

*Hirugarrena*-. Aretoa erabiltzeko baimena ere idatziz emango da, eskatzaileak bete beharreko baldintzak biltzen dituen inprimaki baten bidez.

*Tercero:* La autorización se concederá por escrito, señalándose en la misma las condiciones que habrá de cumplir el/la solicitante.

*Laugarrena*.- Aldi berean bi eskaera aurkezten badira eta biek egun eta ordu berean erabiltzeko baimena eskatzen badute, lehenengo atalean aipatzen den lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio.

Era berean, urtearen hasieran kontuan izango dira kultur elkarteek urtero

garai berean egiten dituzten ekitaldi finkoak, dagozkien erreserbak egiteko areto honen beharra dutenak.

*Cuarto:* Si se presentasen simultáneamente dos peticiones para la utilización del salón para el mismo día y la misma hora, se respetará el orden de prioridad mencionado en el primer artículo.

Asimismo, a principios de año se hará previsión de todos los actos que las asociaciones culturales organicen habitualmente en las mismas fechas, para poder así realizar las reservas de las salas necesarias.

*Bosgarrena*.- Ekitaldia zuzenean Udaleko Kultura Batzordeak antolatua denean, txartel-salmentari, sarrera-kontrolari eta instalazioak prestatzeari dagozkien lanak horretarako berariaz esleitutako enpresek egingo dituzte.

*Quinto:* Cuando el acto esté organizado directamente por la Comisión de Cultura del Ayuntamiento, las labores de la venta de entradas, control de acceso y puesta a punto de las instalaciones las realizará la empresa adjudicataria de dichos servicios.

*Seigarrena*.- Ekitaldia kultura sailarekin hitzarmena sinatuta duten kultur taldeek eta irakaskuntza arautuko ikastetxeek antolatua denean, ekintzaren ordutegia instalazioen ordutegiarekin bat datorrenean, emanaldia-rengatik ez dute inongo kosturik ordaindu beharko.

Sarreren prezioa udaleko kultura batzordearekin adostuko da.

Ordutegi horretatik kanpo antolatzen dutenean, urtean zehar bi emanaldi doan antolatzeko aukera izango dute. Hortik gorako ekitaldietarako, %50aren beherapena egingo zaie indarrean dauden tasei.

Sarreren prezioa udaleko kultura batzordearekin adostuko da.

*Sexto*: Cuando el acto esté organizado por grupos culturales y centos de educación reglada que tienen, firmado convenio con el Ayuntamiento, y si su horario coincide con el de las instalaciones, el grupo organizador del acto no deberá abonar ningún costo.

Los precios de las entradas se establecerán de acuerdo con la Comisión de Cultura.

Si su horario, en cambio, no coincide con el de las instalaciones, podrá organizar gratuitamente dos actuaciones al año. Por aquellos actos que quiera organizar aparte de las dos gratuitas deberá abonar el 50% del precio vigente.

Los precios de las entradas se establecerán de acuerdo con el Departamento de Cultura.

*Zazpigarrena*.- Antolatutako ekitaldia artikulu honetako lehenengo ataleko 1, 2 eta 3 kasuetan sartzen ez bada, ekitaldia antolatzen duen taldeak Udalak urtero onartzen duen prezio publikoa ordaindu beharko du instalazioen alokairuarengatik.

*Séptimo:* Si el acto organizado no se corresponde con los supuestos 1º, 2.º, 3.º y 4.º del artículo primero de esta normativa, el grupo organizador del acto deberá abonar el precio público que el Ayuntamiento aprueba cada año por el alquiler de las instalaciones.

*Zortzigarrena*.- Sor litekeen edozein arazoren berri Kultura teknikariari eman beharko zaio.

*Octavo:* La Técnica de Cultura estará informada de cualquier problema que pueda surgir.

*Bederatzigarrena*.- Ezarritako arauak ez betetzeak ohartarazpena eta zehapena dakartza. Berriz ere ez betetzekotan, Ekitaldi Aretoa erabiltzeko eskubidea galduko da.

*Noveno:* El incumplimiento de la normativa conlleva la correspondiente notificación y sanción. En caso de nuevo incumplimiento, se perderá el derecho a utilizar el Salón de Actos.

**4.3.-Bilera Gela :**
4.3.1. Definizioa :
Eraikuntzaren 2. pisuan dagoen gela hau, neurri txikiko (10/12 pertsona) bilerak egin ahal izateko dago moldatua.

4.3.2. Araudia :
*Lehena*.-Bilera gela erabiltzeko eskubidea, udaleko kultura batzordeak eta beronen ardurapeko zerbitzuek deitutako bilerez gain, herriko kultur taldeek izango dute.

*Bigarrena*.- Bilera gela erabili ahal izateko eskaera idatziz aurkeztu beharko da, Basteroko Administrazioan eskuratuko den ereduaren arabera. Hor datu guztiak azalduko dira, inprimakian agertzen diren moduan. Horrekin batera, adierazten den dokumentazio osagarri guztia aurkeztuko da.

*Hirugarrena*.- Bilera gela erabiltzeko baimena ere idatziz emango da, eskatzaileak bete beharreko baldintzak biltzen dituen inprimaki baten bidez.

*Laugarrena*.- Bilera gela erabiltzeko ordutegia, Bastero Kulturgunearen erabilera arruntaren berdina izango da : astelehenetik ostegunera : 9,30etik – 13,30era// 15,30etik – 22,30era // ostiraletan : 9,30etik – 22,30era // larunbatetan : 9,30etik – 13.30era.

*Bosgarrena*.- Sor litekeen edozein arazoren berri Kontrolean dagoenari eman beharko zaio.

*Seigarrena*.- Ezarritako baldintzak ez betetzeak ohartarazpena eta zehapena dakartza, berriz ere ez betetzekotan, Bilera Gela erabiltzeko eskubidea galduko da.

**4.4-Entsegu Gela :**
4.4.1. Definizioa : Udal Musika Eskolako musikatresna taldeek entseatzeko erabiliko den areto hau Eskolako bigarren pisuan dago kokatuta.

Areto hau, eskolako egitarau kurrikularrei dagozkien musikatresna taldeen entseguetatik libre geratzen denean, horren erabilera arautuko da udalerrian dauden bestelako musika taldeek bertan jarduteko aukera izan dezaten.

Dena den, areto honek arautegi nahikoa zorrotza izan beharko du, horren bidez bermatuz

**4.3.-Sala de Reuniones:**
4.3.1.Definición:
Situada en el segundo piso del edificio, esta sala está creada para celebrar pequeñas reuniones (10/12 personas).

4.3.2.Normativa:
*Primero:* El derecho a utilizar la Sala de Reuniones la tendrán, además de la Comisión de Cultura del Ayuntamiento y los servicios bajo su responsabilidad, los grupos culturales de la localidad.

*Segundo:* Para la utilización de la Sala de Reuniones se deberá presentar la petición por escrito y siguiendo el modelo disponible en la Administración de Bastero. En ella se harán constar todos los datos tal y como se requieren en el impreso. Asimismo, se adjuntará toda la documentación requerida.

*Tercero:* La autorización se concederá por escrito, señalándose en la misma las condiciones que habrá de cumplir el solicitante.

*Cuarto:* El horario de la Sala de Reuniones es la misma que el del Centro Cultural Bastero: de lunes a viernes de 9:30 a 13:30// de 15:30 a 22:30//; viernes de 9:30 a 22:30// y sábados: de 9:30 a 13:30.

*Quinto:* La persona de control estará informada de cualquier problema que pueda surgir.

*Sexto:* El incumplimiento de la normativa conlleva la correspondiente notificación y sanción. En caso de nuevo incumplimiento, se perderá el derecho a utilizar la Sala de Reuniones.

**4.4.-Sala de Ensayos:**
4.4.1.Definición: Sala para que los grupos ensayen con los instrumentos de la Escuela de Música Municipal y situada en el segundo piso del edificio.

Para cuando esta sala quede libre de los ensayos de los grupos del programa escolar curricular, se regulará su uso para que otros grupos musicales del municipio puedan usarla.

De todos modos, esta sala deberá disponer de una normativa suficientemente rigurosa para

instalazioekiko begirunea, musika eskolaren ordutegia, eskolako materiala, etab. eta, horrexegatik, bertara sartu ahal izateko gutxieneko ezagutza maila bat izatea eskatuko da.

4.4.2. Araudia:
Areto honen erabiltzaileei bermatu ahal izateko ordutegietan, materialen erabilera egokian eta taldeko jardun musika egokian baldintza ziurrik izango dutela, ondoko jarduteko arauak ezarri dira:

*Lehena*.- Areto hau jarraian zerrendaturikoek erabili ahal izango dute, adierazitako lehentasunei jarraiki:

1. Musika eskolako musikatresna taldeak.
2. Musika eskolako ikasleek osaturiko musikatresna taldeak, baina eskolak berak eskaintzen ez dituenak.
3. Udalerriko lagunek osaturiko musikatresna taldeak, baldin eta kideek egiaztatzen badute gutxieneko ezagutza musikalaren jabe direla.

*Bigarrena*-. Egutegia eta entseguetako ordutegia:

1. Iraileko lehenengo hamabostaldian, Musika Eskolako zuzendaritzak bertako musika taldeentzako ordutegiak prestatuko ditu.
2. Iraileko bigarren hamabostaldian zehar, eskolak berak eskaini ez duen musika tresna talde bat osatu duten ikasleek (%80-ak Musika Eskolako ikasle izan beharko dute), Eskolako Administrazioan eskuratuko duten eskaera-orri baten bidez ordu-txanda eskatu ahal izango dute aipatu aretoan entseatzeko.
3. Urriaren hasieran, behin lehenengo puntuko 1. eta 2. epigrafeetan zehaztutako taldeetakoak biltzen dituen egin behar den entseguen ordutegi taula amaitu ondoren, eskaintza egingo da libre gelditu diren ordu eta egunekin lehenengo puntuko 3. epigrafepean sailkatu ditugun herriko bestelako musika taldeek eska dezaten.

   Eta, egun eta ordu bera eskatzen duten bi talde ala talde gehiago badaude, zozketa egingo da.

*Hirugarrena*.- Musika eskolako talderen bati (1.) beharrezko gertatzen zaionean beste taldeen ordutegia ukitzen duen aparteko entsegurik egitea, lehentasuna izango du egun horretan erabili ahal izateko, beti ere esandakoei 8 eguneko aurrerapenez jakinarazten baldin bazaie,

asegurar el respeto hacia las instalaciones, el horario de la escuela de música, el material escolar, etc. Por eso, para poder acceder a ella se requerirá tener un conocimiento mínimo.

4.4.2.Normativa:
Con el fin de garantizar a los usuarios de esta sala unas condiciones seguras en lo que respecta a horarios, uso debido del material y correcto desarrollo de la actividad musical en grupo, se establecen las siguientes normas de actuación:

*Primera:* El orden de prioridad con respecto al derecho de uso de la Sala de Ensayos es el siguiente:

1. Grupos musicales de la Escuela de Música.
2. Grupos musicales formados por estudiantes de la escuela de música y que no son ofertados en la escuela
3. Grupos musicales formados por personas del municipio, siempre y cuando certifiquen poseer un conocimiento mínimo de música.

*Segunda:* Calendario y horario de los ensayos:

1. En la primera quincena de setiembre, la dirección de la Escuela de Música preparará los horarios para los grupos musicales locales.
2. Durante la segunda quincena de setiembre, los estudiantes que formen un grupo musical que no es ofertado por la escuela (el 80% deberá ser estudiante de la Escuela de Música), podrán obtener su turno para ensayar en dicha sala mediante la solicitud disponible en la Administración de la Escuela.
3. A principios de octubre, una vez realizada la tabla para el horario de los ensayos de los grupos mencionados en los puntos 1.1 y 1.2, se realizará la oferta de los días y horas libres, para que los demás grupos musicales locales mencionados en el punto 1.3 formalicen su solicitud.

   Si dos o más grupos coinciden con el día y la hora, se procederá al sorteo.

*Tercera:* Si un grupo de la escuela de música (1.) precisa realizar un ensayo extra que afecte el horario de algún otro grupo, tendrá prioridad para realizarlo, siempre y cuando lo comunique al grupo afectado con 8 días de antelación y realice dicha notificación mediante la Técnica de Cultura.

jakinarazpen hori kulturako teknikariaren bidez egingo delarik.

*Laugarrena*.- Sor litekeen edozein arazo berehala jakinaraziko zaio kontroleko langileari eta kulturako teknikariari.

*Bosgarrena*.- Aretoan era iraunkorrean bertako materiala finkoa egongo da, zeina Bastero egoitza bertakoa izango den eta, beraz, udal jabetzakoa. Material hori altzariek osatuko dute (aulkiak, arbelak, armairuak...) eta baita musika jardunerako beharrezko diren bitartekoek (atrilak, musikatresnak, etab.).

Material hori behar bezala erabiltzearen erantzukizuna aretoan entseatzen duen taldearen arduradunarena izango da, ohi denez irakaslea izango delarik.

Entseatzen ari den taldea Musika Eskolakoa ez denean, bere materiala eraman beharko du, erabil ditzan baimentzen zaizkionak izan ezik, uneoro jakinarazi beharko diolarik instalazioen zaintzaz arduratzen den teknikari edo langileari material horretan antzemaniko anormaltasunik.

*Seigarrena*.- Ezarririko arauak ez betetzeak ohartarazpena eta zehapena ekarriko du. Birritan betetzen ez bada arauturikoarekin, aretoa berriz erabiltzeko eskubidea galduko da.

*Cuarta:* La Técnica de Cultura y la persona de control estarán al corriente de cualquier incidencia que pueda surgir.

*Quinta:* La sala se encontrará dotada permanentemente del correspondiente material fijo, que será patrimonio del mismo centro y, por lo tanto, de propiedad municipal. Dicho material estará compuesto por los muebles (sillas, encerados, armarios) y también por instrumental necesario para la ejecución e interpretación musical (atriles, instrumentos musicales, etc).

La responsabilidad sobre el uso adecuado de dicho material será del responsable del grupo que se halle actuando en la sala, que habitualmente será un profesor.

Cuando el grupo que se encuentre ensayando no pertenezca a la Escuela de Música, deberá aportar su propio material, salvo aquel para el que haya obtenido autorización de uso, debiendo comunicar en todo momento al técnico responsable de las instalaciones o al trabajador que esté a cargo de las mismas, las anormalidades/¿anomalías? observadas en el mismo.

*Sexto:* El incumplimiento de las presentes normas conllevará la correspondiente amonestación y sanción. El incumplimiento reiterado supondrá la perdida del derecho a volver a utilizar dicha sala.

**5.-Ordutegia:**

Bastero Kulturgunearen guneek, auditorioak ezik, honako ordutegia izango dute :

- Astelehenetik–ostegunera: 9,30etik – 13,30era eta 15:30etik 22:30era.
- Ostiraletan: 9,30etik - 22,30era
- Larunbatetan: 9,30etik - 13,30era

**5.-Horario:**

Los diversos servicios y espacios del Centro Cultural Bastero, salvo el teatro, tendrán el siguiente horario:

- De lunes a jueves: de 9:30 a 13:30 y de 15:30 a 22:30.
- Viernes: de 9:30 a 22:30.
- Sábados: de 9:30 a 13:30.

**6.-Prezioak:**

Udaleko Kultura Batzordeak, urtero, Bastero Kulturgunean eskainiko diren emanaldien nahiz zerbitzuen prezioak proposatuko ditu. Horretarako prezio mota hauek bereiziko direlarik

6.1. Emanaldiak :

6.1.1.-Zine emanaldiak :

- Haur zinea.

**6.-Precios:**

La Comisión Municipal de Cultura, anualmente, propondrá los espectáculos que se ofrecerán en el Centro Cultural Bastero y los precios de los mismos. Para ello se distinguirá entre las siguientes modalidades de precio:

6.1.-Espectáculos:

6.1.1.Emisiones de cine:

- Cine infantil.

- Saio arruntak.
- Ikusle eguna.

6.1.2. Antzerki, Musika, Ikuskizun orokorrak :
- Haur saioak.
- Helduak.
- Beherapenak.

6.2. Abonuak.

6.3. Alokairuak :
6.3.1. Auditorioa.
6.3.2. Ekitaldi Aretoa.

**7.- Araudi hau indarrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.**

- Emisiones ordinarias.
- Día del espectador.

6.1.2.Teatro, música, espectáculos en general:
- Actuaciones infantiles.
- Mayores.
- Con descuento.

6.2.-Abonos.

6.3.-Alquileres.
6.3.1.Auditorio.
6.3.2.Salón de Actos.

**7.-El presente reglamento entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.**